

## Arratia-Nerbioi Txapelketako finala: Zeanurik txapel bi, Areatzak bat

11. orrialdea

## Arconada filmak irabazi dau Luzetu Barik sari nagusia

Urtailaren 16an izan zan Luzetu Barik Film Labur Lehiaketako sari banaketea. Asier Urbietaren *Arconada*, Ibon Izaren *Txakile*, Zarrabeitia, Murgoitiko, Gomez eta Fernandez *Eraztunaren sekretua* eta Unai Portillaren *Hilzorian* izan ziran saridunak. 12. orrialdea



## Martxan dago Arratiako tranbiaren gaineko erakusketea

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 223

2015eko zezeilaren 2a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

# Igorren, San Kristobalen, egin eban aurkezpena Murias Taldeak

Murias kontinente mailako euskal taldeak ekin deutso bere lehenengo probeari, Mallorcako Nazinoarteko Challengeari, hain zuzen be.

**A**urretik, eta aurkezpen moduan, Gasteiztik Igorreko San Kristobal auzuneraino ibilbidea egin eban urtailaren 24an. Taldea Murias enpresek eta Arratiako Ziklista Elkarteak sortu dabe eta egoki iruditu jakien, txirindulartzeari hain lotuta dagoan Igorreko auzune honetan aurkezpena egitea.

Aritz Bagües, Ander Barrenetxea, Mikel Bizkarra, Garikoitz Bravo, Imanol Estevez, Egoitz Garcia, Adrian Gonzalez, Jon Ander Insausti, Unai Intziarte, Eneko Lizarralde, Haritz Orbe eta Beñat Txoperena dira taldeko ziklistak. Kirol zuzendaria Jon Odriozola da. Danen aurkezpena erdiko orrialdeetan. 8. eta 9. orrialdeak



Beinat Anzola Igorreko alkatea eta Juan Mari Zurinaga AZEko presidentea Murias Taldekoakaz Igorren.

## ARRATIA

### Txitxi-burruntziak eta mozorro desfileak



Mozorro lehiaketa ugari egongo da gurean Aratusteetan. Eskola guztietako umeak desfileak egingo dabez eskolan egindako mozorroakaz eta guraso alkarteak mozorro jaiak antolatu dabez ostean zerbait jan eta sariak bananduteko. Aurten Aratusteak zezeilaren 12tik 17ra izango dira eta Igorre eta Lemoan egitaraua prestatu dabe. 6. orrialdea

## ARRATIA

### Kopla ugari Agate Deunaren bezperan herri eta auzoetan

Hilaren 4an, Agate Deunaren bezperan, talde ugari batuko dira santa eskean, Arratia, Ubide eta Zeberioko auzuneetan, makilak eskuan, santearen omenezko koplak kantetako. Arratiako Koruak egun osoko ibilbidea dauka, eta Arratia, Zornotza eta Bilbon kantauko ditu koplak. Hilaren 8an, Zeanuriko Santa Ageda ermitan, santearen martirioa deskribiduten dabezan koplak kantauko dabez mezan. 5. orrialdea



Argazkia: Sara Gutierrez.

## ARRATIA

### Korrika antolatuteko batzarra 3an

Aurtengo martiaren 19tik 29ra, Urepeletik Bilbora izango da 19. Korrika. Edizino honetako lema Euskahaldundu da eta Durangoko Azokea omenduko dau. Arratiako Korrika Batzordea hilaren 3an batuko da Kubulu euskaltegian.

Korrikan parte hartzeako modu asko dagoz: Korrika Laguntzailea euskarria erosiz, Korrika 19ren materiala edo oroigarriak eskuratuz, herriz herri egingo dan Korrikaren aldeko diru bilketan lagunduz, Korrika Kulturalak antolatuko dauzan ekitaldietara agertuz, kilometro bat erosita, eta jakina, bizkarrekoa jantzita korrika eginaz. 5. orrialdea



# ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## SAN MARTINEN HAMABI EGIAK (II)

Esaik zazpi: zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrek sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelisteak lau, hiru Trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik zortzi: zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrek sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelisteak lau, hiru Trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik bedratzi: bedratzi ordenamenduak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrek sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelisteak lau, hiru Trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik hamar: hamar mandamentuak, bedratzi ordenamenduak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrek sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelisteak lau, hiru Trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik hamaika: hamaika mila angeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamenduak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrek sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelisteak lau, hiru Trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik hamabi: hamabi apostoluak, hamaika mila angeruak, hamar mandamentuak, bedratzi ordenamenduak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrek sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelisteak lau, hiru Trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.



Ez Dok Amairu taldekoak.

sakramentuak, sei zeruko izarrek sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelisteak lau, hiru Trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gai-

zak. Esaik hamairu: ez dok amairu! oilarrak jotzen jok munduan, angerutuak zeruan. Hemendixek hartu eban Jorge

Oteizak "Ez Dok Amairu" kanta talde ospetsuarentzako izena, 13 zenbakiaren malefizioa apurtzeko.  
**Juan Manuel Etxebarria Ayesta**

### TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Zezeilaren 2tik 8ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**  
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Zezeilaren 9tik 15era**  
Traver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**  
Melero. Amorebieta-Etxano.

**Zezeilaren 16tik 22ra**  
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**  
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**  
**22:00etatik 09:00etara**  
Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areata:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30  
**Igorre:** 94 600 74 63  
**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areata:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**  
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**  
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**  
94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**  
94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**  
94 631 52 90

**Trenak**  
Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**  
**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.  
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.  
Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.  
Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**  
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**  
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.  
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Arrigorriaga**  
Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.  
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

**Zeberio-Arrigorriaga**  
Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Zeberio-Artea**  
Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzen da lanegun eta zapatuetan.  
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Arrigorriaga-Zeberio**  
Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40. Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union\* 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Inigo Iruarrizaga.  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpuri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Praktiketako ikaslea:** Irati Urien.  
**Erredakzino taldea:** Jon Urutxurtu.  
**Maketazinoa:** Inigo Iruarrizaga.  
**Publizitatea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketean:** Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areata), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iratze Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tiradea:** 6.800 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEA  
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceministerio de Política Lingüística

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

**BATZ**

## ZEURE BERBEA

### Txorokil kanterearen gainean

2014ko zehazkiaren 17an, Zeure Berbea atalean Txorokil kanterearen gainean agertu zan kartan esaten ziran gauza batzuk argitu guran gaurkoan.

Bertan aitatzan zan "proiektu barri" baten aurrean gengoza. Argi eta garbi itxi gura doguna da proiektu hau ez dala barria. Honen istoriotxo 1983an geldirik egoan Txorokil kanterea herriko Arau Ordezkoetan (Norma Subsidiarioak) sartu eban Zeanuriko Udalak zinegotzi guztien adostasunagaz. Gero, barrero 1998ko Normen Errebisinoan be kantera hori mantentzea ebazi zan. Orduan be zinegotzi guztien adostasunagaz.

2.000. urtean herritar batzuk enpresa batzuk ipini ziran kontaktuan kanterea martxan ipinteko. Udaleria joan ziran laguntza eske eta beste proiektu batzuk egiten dan antzera, laguntzeko prest agertu zan. Kanterea handitu gura eben eta horretarako Normen aldatzea planteau beharko ebela Udalan esan jakien. Holan ba, momentuan egoan Udalbatzak ondo ikusi eban planteetan ebena propietarioak eta oneretxia emon jakon EAJ-PNVren botoakaz. Tramiteak egiten hasi ziran eta

2.004ko Hasikerako Onarpena emon eutsan Udalak proiektuari, eta 2006an behin betikoa.

2014ko zezeilean kanterea ustiatu gura dauan enpresek jarduera baimena tramitetzea eskatu eban Udalan. Orduan hasi dira proiektu hau gelditu guran, baina jadanik berandu da. Behin espedientea martxan dagoanean, proiektuak legeak eskatzen dauzan gauza guztiak beteten badauz, Udalak derrigorrean baietza emon behar dau. Beteten ez badauz, ezetza. Momentu honetan proiektua geldirik dago, Ubideko Udalak lurra kontaminatuta dagozalakoan egin dauan alegazioagaitik. Holan balitz, kanterea ustiatzen hasi aurretik lur horreek aurrez dik garbitu beharko leitezke.

Argitu beharreko beste kontu bat, alkatearen esanetan jarten dabezan pare bat gauza. Alde batek, alkateak biltzeako ezezkorik ez eutsela esan, Plenoan eztabaidatuko zala gai hori esan eutselako, eta bestetik "goitik" jatorkozala gai horren gainean hartu beharreko ebatziak. Hori ez da egia. Bai alkateak eta baita be EAJ-PNVk ospatutako batzar informatiboetan esan dabena hauxe izan da: Udalak momentu honetan ezin dauala atzerantza egin. Proiektuak legeak eskatzen deusana bete ezker, ezin dauala Txorokil kanterearen ustiapena gelditu, legea urratu leukelako eta hori, prebrikazinoa izango leitekela.

Beraz, ze zentzu dauka herritarrai zer gura daben galdetzeak

Udalak ezin badau ezer egin? Seriotasunez jokatu behar dala pentsetan dogu eta erantzun bat eskatzen jakienan herritarrai gero kontuan eukiteko izan beharko leukela pentsetan dogu. Kasu honetan ezingo leitekenez, hori da Udalak erreferenduma egitearen alde ez egotearen errazoa, eta ez besterik.

ZEANURIKO URI BURU BATZARRA  
EAJ-PNV

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA



### GONZALO FERNÁNDEZ ORTIZ DE ZÁRATE

EHUko, Hegoa, Garapen eta Nazinoarteko Kooperazinarako Institutuko kidea

### Syriza austeridadearen aurrean

Urtilaren 25ean Greziako hauteskundeetan Syriza ezkerreko koalizioak lortutako garaipena mugari historikoa da; ez bakarrik Greziarentzat, baita Europa osoarentzat be. Izan be, lehenengo aldia da Bigarren Mundu Gerrearen ostean ezkerreko indar batek Greziako bipartidismoari lekua kentzean deusala, eta baita lehenengo aldia be, Europako hegoaldeko herrialde batek kontra egin deusala, troiak (Nazinoarteko Diru Funtsa, Europako Banku Zentrala eta Europako Batzardea) eta bere aliaduak ezarritako austeridade politikai hauteskunde bidez.

Orain hiru urte % 5 baino lortzean ez eban partidu batek, ia gehiengo absolutua lortu dau. Syriza egoera dramatiko baten aurreko herritarren haserre, hauteskunde mobilizazio eta mobilizazio sozial bihurtzen jakin izan dau. Holan, Troikaren esku-sartzearen eta Demokrazia Barria eskoieko gobernuaren menpekotasunaren aurrean Syriza itxaropena eta duintasuna eskeini dauz.

Gehiengo sozialak Troika eta aurreko gobernu, entidade antidemokratiko moduan ikusi izan ditu, adostutako gitxineko sozialak apurtzeko prest egon diranak sistema finantziarioaren alde. Holan, lehentasuna emon deusie zorra pageteari eta Europak dekretutako

austeridade aginduak beteteari, ehun ekonomiko hondoratuz, enpresa publikoak pribatizetako prozesu bat martxan ipiniz, eta ondoizate estatu eskasa deseginez. Hau da, bipartidismoa kapitalagaz alietan zan bitartean, Syriza sendo mantentidu da gehiengo sozialakaz (beharginak eta gizarte maila ertaina), eta horrerik esker ia gehiengo absolutua lortu dau.

Garaipen hau dala eta, Syriza erroka handiak ditu aurrean aldagai bik marketan daben testuinguru konpleju baten barruan: lehenengo eta behin, eskoieko nazionalista independenteakaz batera egindako koalizio gobernu batetik abiatzen da. Eskoieko nazionalista independenteak, austeridadearen eta Europaren esku-sartzearen kontra dagoz baina agindutako aldaketen maila mugatu lekie. Beste alde batetik, Greziak Europako markuan, euroan, eta Europako bankuagazko zorraren dinamika gaiztoan segiduteak be mugatzen dau gobernu barriaren jokatzeko marjina.

Dana dala eta muga honeetaz konsziente izanda, Syriza ausardiaz jokatu behar dau epe laburrean *statu quo*-aren aurrean bere izakera alternatiboa erakusteko eta Greziako herritarren ondoizatea eta autonomia berreskuratzeko. Horretarako zorra berregituratu behar dau, gitxineko soldata igon, pribatizazio prozesuak gelditu, erreforma fiskalari ekin, eta danontzako osasun eta hezkuntza publikoa eta dobakoa bermatu behar ditu.

Gainera, eta etorkizunari eta Europara begira, Greziako herritarren koizentzia soziala eta zentzu kritikoa handitzea lortu ezker, Syriza egiturazko errokak planteau ahal izango dauz; esate baterako, zorraren kontu-ikuskaritza egitea, bankuak eta sektore estrategikoak nazionalizetea, ekonomia solidario baten alde egitea eta euroa eta Europa eredu bidebako eta antidemokratiko hau kolokan ipintea.

Eta hor, Europako herri guztiak aliatu eta solidarizatu egin behar gara, gure etorkizuna alkarlotuta dagoalako, Europa barri bat behar dogulako. Syriza bide horretatik aurrera egingo daualakoan gagoz.

**Erredakzioan itzulita**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Zurda



Neguko sasoiak gauak hotzak izaten dira. Hotz handiak, 0 azpiko gradukoak, ezotasunagaz (hezetasuna) lagunduta, gogor jotzen dauanean landareetan, soloetan eta lur gainean lei mehe eta zuria sortzen da, zurdea esaten deusagu honeri Arratian (surdéa, agoskatuta). Zurdea egon daiten, gainera, ez dau egin behar haize gogorrik. Aurreko baten aitatu genduan lei zuri berbearen sinonimotzat hartu geinkeala zurda berbea. Esate baterako: "Bart sekulako zurdea edo lei zuria egin dau!".

## LUMATUTEN

URTZI  
BARRENETXEAArmosu gazi-  
gozoa

**G**osaria prestetan nabilela, ordu honeetan etxeak eukiten dauan isiltasun berezia entzuten egon naz, trankil batean, erlojuak mobidu beharra erakutsi deustan arte. Erropak jantzi orduko, leihotik begiratu dot, betiko lez, zelango eguna eukiko dogun esango deustan pistaren baten bila. Egun hasierako argi berezi honek negua etorri jakula dinosta.

Kafearen lehenengo tragugaz, hor ikusi dot, erdi ilunetan, fabrikearen eguneroko irudi ezaguna, eta agoa gozatu deusta barriro martxan ipinitako argi horreek. Ekina baragarria dala dinoe. Zarratutako fabrika bat gaur egun be zabalduetea posible dala erakusten deusie nire azken aldiko ezkortasunari.

Baina sabeleratu orduko gazituta jata edandakoa, burutik pasau jatanean kanpora urten

eta kotxea kendu ezinezko hauts geruza bategaz topau ahal dodala. Bardin antzekoa sentidu neban isurketetarako fitroak partikularik txikiena be jasoten dabela irakurri eta gero, azkenengo keja-orriaren erantzunean.

Bigarren zurrutak eta lkerren marmeladearen gozotasunak bide ezkinako kanpaleku koloretsua eta pasadako kamioien bozina ekarri deustez barriro epeldutako gogora. Oinetakoak lotzean dodazan bitartean (gaurkoan ez dau euri handirik egingo), herriko jente desbardina irudikatu dot martxan, pankarta baten ostean.

Gaur be berandutu egin jatanez, eskaileran behera noala jantzen dot jakea, eta ez dakit kalera urten eta amoniakoaren antzeko usaina topauko dodan. Aspaldian igarri ez arren, gauza batzuk ez dira aiztuten.

Kotxera sartzean, fabrikearen eta nire leihoaren artean dagoan eskolako jolastokira joataz begiak. Umean galapada eta zaratakaz laster beteko dala pentsetean, golpe gogorregia emon deustat ezeren errurik ez daukan ateari.

## ZERTZEAN



## Hesia

## ARITZ ARRIZABALAGA

**B**etidanik iruditu izan zaio herdoilduta jaiotzera, berezko horitasunean indarrez agertzen direla orban laranja-marroixkak. Berdin zuen (eta du) zenbateko distantziatik begiratu. Izan hiru, zazpi edo hamaika metro, hesian horia zahartzen eta marroixka indartzen dela begitantzen zaio. Jaiotzetik dagokion patua da: burdinazkoa den oro zahartzen eta ugertzen da. Hala ere, kalean ikusten dituen bakoitzean zahartuta jaiotzera pentsatzen du, ez direla sekula gazte izan. Ez da gai gaztaroan irudikatzeke. Zaharrak zaizkio, oso zaharrak.

Horretarako ez dago asko hurbildu beharrik. Hesi guztiak azkenetan daudela urrunetik nabaritzen da. Baita, momentu honetan, parean duena ere.

Hurreratu egin da.

Hilabete da lanera joan beharrik ez duela. Berro-

gei urte egon da lantegian gauza bera egiten eta ez da sekula aspertu. Ez nauk sekula aspertu, esaten dio bere buruari. Azken hilabetean baina, amaigabeko bihurtu zaizkio egunak. Egunkaria leitzeak eta tabernan sartzeak mina arintzen badiote ere, ez dira uste bezain lagun onak.

Kalea konpontzen ari dira. Astiro, uste baino astiroago. Hamarkada bat bai proiektuari herritarrek baiezkoa eman ziotenetik. Espaloia zabaldu eta lauza berriak jartzen dabilta orain. Aurrean duen hesi horiak muga sinbolikoa eratzen du herritarren joan-etorri eta langileen jardunaren artean.

Taberna eta egunkariak oroituta da.

Langileenganantz pausoa eman eta, hesiak herdoila non duen egiaztatu ostean, bertan bermatu ditu besaurreak.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

## "Kandelario lario" Zeanurin

**H**arriduraz eta pozarren entzun dabez zeanuriztarrak aurtan kandelario lario aspaldiko kantua eta umeen errondea etxez etxe.

Neguko jai giroko jaiak da kandelario gure herrian, baina Arratian aspalditik erdi aiztuta egon da koplak hau eta umeen errondea egiteko ohitua. Zeanuriko katekesiko gurasoen ekimenez, gaur, urtailak 25, barriro entzun dira Eleizondo auzunean aspaldiko koplak.

Argiaren Jaiak ospatu da lehendabizi parrokiaren, eta 50 bat ume be-deinkatu dira bertan. Ondoren, txistulari eta panderuen alaitasunez, etxez etxe joan dira umeak kantuan eta eskean. Hemen gozoki batzuk, harago intxaurrak... pozarren emon dabe domeka goiza Zeanurin.

Beraz eta jatorriz, jaiak zezeilaren bigarrenegun ospatzen da, baina Arratiako abade eskasia dala-eta, Zeanurin aurreratu egin dabe jaiak hau, neguko jai zikloaren atarira. Ondoren etorriko dira San Blas, Santa Ageda eta Aratusteak. Jaiak honek guztiak udabarriari begira ospatzen ziran aspaldi gure herrietan.

*Jon Urutxurtu*



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarregia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Hilabete Zerbaita 900  
R.P.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** Grupo SasoiBide  
Balneario Areatza  
Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718  
www.gruposasobide.com Tel: 94 657 54 50

## ARRATIA

# Begoñako basilikan eta Santiago katedralean kantauko ditu Agate Deunaren koplak Arratiako Koruak

Tradizino luzeari jarraipena emonez, aurten be Santa Agedaren bezperan, hilak 4, Arratia Ubide eta Zeberio kaleak koruz beteko dira, santearen koplak kantetan.

### Erredakzioa

Zaharrenetako da eta jente gehiena biltzean dau Arratiako Koruak. Koru honek Arratian, Zornotzan eta Bilbon kantauko ditu santearen omenezko koplak, goizeko zortziretatik, gaueko bederatziretatik arte.

### Arratiako korua 1951tik

Arratiako korua 1951 urtean sortu zan, bertan 65 persona inguru batzean dira, edade guztietakoak. Zaharrenak 74 urte daukaz eta gazteenak 8. Partaide batzuk, 50 urte inguru daroek koruagaz konprometiduta. "Itziar eta Juan Ramon Bernaola nebarrebak dira koruan urte gehien daroenak, 50 urte inguru, hain zuzen be. Artean bizi dira. Lemoako Balentin Unanuek be 50 urtetik gertu daroaz Arratiako Koruagaz konprometiduta"



Arratiako Korua Bilbon.

Argazkia: Sara Gutierrez.

azaldu deutso BEGITURI Jabi Arbe korukoak.

Errepertorioari jagokonean, lau koplak desbardin kantetan dauz koruak. "Areatzako komentuan,

Begoñako basilikan eta Santiago katedralean beste hiru edo lau abesti kantetan doguz koplez gainera. Eta zelan ez, Bilbon kantetan dogun azken lekuan, hau da, Arriaga plazan, eta ibilbidearen amaieran, Areatzako plazan, Olazolaren "Agur Jaunak" kantetan dogu bost abotsetan, egun paregabearen amaiera gisa" dino Arbek.

Korukoak Arratia eta Bilbon kantauko dabezan koplak entzuterako konbidau gura dabez arratiar guztiak, eta zemendian hasiko dituen enseguetan parte hartzera animau. "Arratiako Koruak, Arratia bihotzetan eta abotsetan eroaten dau" dinoe.

Egun horretan jasotako dirua Caritas-entzat izango da.

### Ibilbidea eta ordutegia

Hauxe da Arratiako Koruak egingo dauan ibilbidea:

08:45ean Arantzazu.

09:00etan, Dima.

09:25ean, Igorre.

09:45ean, Lemoa.

10:00etan, Zornotza.

11:15ean, Begoñako Basilika.

12:00etan, San Anton, erriberako merkadua, Plaza Barria, Iparkutxa, udaletxea, BBVA, El Corte Ingles eta BBK.

13:30ean, Bizkaiko Foru Aldundia.

14:30ean, bazkaria Piperrak Txokoan.

17:00etan, Kale Nagusia, Areñala.

18:30ean, San Nikolas, metroa, Donibane santuen plazatxo...

19:00etan, Santiago katedrala. Zazpi Kaleak.

20:00etan, Arriaga aurrean agurra.

20:30ean, Bedian umeakaz.

20:45ean, Artea.

21:00etan, Zeanuri.

21:15ean, Areatzan amaiera.

### Beste koruak

Santa Ageda egunaren hurrengo domekan, zezeilak 8 aurten, Zeanuriko Santa Agedako ermitan, koru txiki batek santearen martirioa kontetan daben koplak kantetan ditu. Sei-zazpi gizonek osotuten dabe korua eta egun horretan egiten dan mezan kantetan dabez koplak honeek.

Zezeilaren 4an, Arratia, Ubide eta Zeberio kaleak, santearen omenezko koplak kantetan dabezan talde txiki zein handiz beteko dira. Eskola umeak, parroketako koruak, abesbatzak, lagun taldeak eta kultur alkarteetakoak koplak errepertorio aberatsa eskeiniko dabe auzunez auzune.

"Santa Ageda omenez hartuta / soinuaz eta makilaz / Bat, bi hiru... Eup!!".

## ARRATIA

# Korrika badator!

Korrika 19 martiaren 19an Urepelen hasi eta 29an Bilbon amaituko da.

Arratian 28an sartuko da, zapatu arrastian, Bilbora bidean.

### Arratiako AEK

Zer arin pasetan dan denporea. Bi urtera doa atzen Korrika, hamazortzigarrena, Baionan amaitu zanetik eta, honezkerok, Korrikaren edizino barri baten atarian gagoz: martiaren 19an hasiko da Korrika 19 Urepelen (Nafarroa Beherea) eta martiaren 29an bukatuko da Bilbon, Bizkaiko uriburuan.

Idatzi bako araua da Korrika aurrekoa amaitu dan herrialdean hasten dala eta Euskal Herriko uriburu baten, txandaka, amaitzen dala. Hori da, eta ez besterik, Korrika 19 Urepeletik Bilbora egiteko errazoia. Badauka, dana dala, bilatu ez dan sinbolismoa: Iparraldetik Bizkaira, nekazal giroko herri txiki batetik Euskal Herriko urigunerik handienara, Xalbadarren bertsoetatik Arestiren poesiara. Hori izango da aurten

Korrikaren ibilbide geografiko eta emozionala.

Korrikaren edizino barriaren lema EUSKAHALDUNDU da, eta Korrikak eta AEK-k lemeagaz zabaldu gura daben mezua "guztion artean, auzolanean eta alkarlanean, lortu ahal dogula euskeraz biziko dan herria, euskalakariz osotutako herria".

Herririk auzolanean eta alkarlanean lorpen handiak egin ditu -Korrika bera, esaterako- eta horixe da Korrikaren eta AEKren nahia, iraganean legez gaur egun be ahalmen personalak eta kolektiboak batuz eskuzabala eta ahaltsua dala frogatzea. Mezuari lotuta dator Korrika honetako omendua: herri honek auzolanean eta alkarlanean lorpen handiak egin dituela azpimarratzen dau Korrika 19ren mezuak; ba, horreetako bat da Durangoko


Azokea. Azokeak ia 50 urteko ibilbidea dauka aurten beteko dau-eta mende erdia.

### Arratiako Korrika Batzordea zezeilaren 3an Igorren

Korrikan parte hartzeako modu asko dagoz: Korrika Laguntzailea euskarria erosiz, Korrika 19ren materiala edo oroigarriak eskuratuz, herriz herri egingo dan Korrikaren aldeko diru bilketan lagunduz, Korrika kulturalak antolatuko dauzan ekitaldietara agertuz, kilometro bat erosita eta, jakina, bizkarrekoa jantzita korrika egin ez.

Horreetako hainbat daborduko martxan dagoz. Esaterako, Korrika laguntzailearen euskarriak eta Korrikaren materiala salgai dagoz Igorreko Kubulu euskaltegian. Eta abian da Korrika Kulturala be. Aurreratzen deusuegu Korrika Kulturalaren barruan zezeilaren 20an kantu-poteoa egingo dala Igorren, eta 27an Gosariak emonaldia (Goseren musikea eta Joseba Sarrionandiaren berbak) egongo dala Igorreko Lasarte aretoan; biak iluntzeko 20:00etan.

Baina, horrezaz gainera, Korrikan parte hartzeako modurik zuzenena Korrikaren beraren antolaketan laguntzea da, duda barik. Holan, Arratiako lehenengo



Korrika batzordea zezeilaren 3an izango da Igorreko Kubulu euskaltegian. Bertara joateko deia egiten deutse, beraz, Arratiako AEK-k, eskualdeko euskaltzale eta Korrikazale guztiak, Arratiako alkarte, erakunde eta norbanako guztiak.

Geratzen diran hilabete bietan Korrikaren barri emoten segiduko dogu orriotan (ibilbide zehatza

Arratian, ekitaldien programazino... Dana dala, informazino gehiago eskuratu gura dauanak badauka nora jo:

<http://www.korrika.eus>

[www.facebook.com/aek.euskalakari](http://www.facebook.com/aek.euskalakari)

[twitter.com/EuskalakariAEK](http://twitter.com/EuskalakariAEK)

eta Arratian:

[www.facebook.com/korrikaarratia.euskalakari](http://www.facebook.com/korrikaarratia.euskalakari).

## ARRATIA

**Kanporamartxo eta Aratusteak ospatuko dira hilaren erdikaldean**

pasetako. Baina nagusiak be Aratusteak ospatuko dabez eta horretarako 19:00etan, poteoa antolatu dau Jai Batzordeak jubiladuen tabernatik hasita. Orkestra Elektroxarangeak lagunduko dau poteoa ordubete beranduago Kresala tabernatik eta partaideak mokautxo bat jango dabe Herradura tabernan. Hamarretan, Hariketarrak Gazte Asanbladeak antolatuta, erromeria egongo da Karbie Gaztetxean.

**Mozorro desfileak**

Herri gehienetan zezeilaren 13an izango dira eskola umeen desfileak. Eskolan egindako mozorroak jantzita, herritik zehar ibiliko dira eguraldiak lagunduten badau eta gero jaia egingo dabe eskolan, frontoian edo kiroldegian. Halaxe izango da Artea, Dima, Zeanuri eta Zeberion. Artean, barbarako, 14:45ean hasiko da jaia. Mozorro desfilearen ondoren, gurasoak txokolatea eta bizkotxoak eroango ditue eta Zeberion be txokolatearen ondoren disko festa egingo dabe. Zeanuriri jaia frontoi handian izango da eta desfilea eskolatik haraino. Han txokolatea eta bizkotxoak egongo dira danontzat.

Bedian, hilaren 13an, ludotekan mozorroak prestatuko dabez baina desfilea hilaren 17an izango da.

**Erredakzioa**

Aratuste inguruko tradizio batzuk bizirik diraue Arratian, Kanporamartxo, esate baterako. Aratusteetako aurreko domekan txixi-burruntziak egingo dabez inguruko mendi eta zelaietan kuadrilak, mendi taldeak, eskola umeak eta guraso alkarteak, horixe da Kanporamartxo. Astebete beranduago Aratusteetan eskola umeak izango dira protagonista nagusiak. Igorren, herri osoak ospatuko dauz jaiok hilaren 13 eta 14an.

Hilaren 8an da Kanporamartxo eguna, baina modu malguan hartzean da hemen eta Lemoako eskolan, barbarako, txixi-burruntzia hilaren 12an egingo dabe Aratuste jaiaren bezperan.

Arratiako herrietan, Ubiden eta Zeberion txixi-burruntziak egin eta txorizoa eta taloa jango dabe kuadrilak eta lagunak.

**Igorren egun bi**

Arratiako Aratuste jairik handiena Igorren ospatuten da. Herriko hainbat alkartek antolatuten dabe eta herri osoak hartzean dau parte. Hilaren 13an, barikuan, hasiko da jaia eta zapatu osoa be hartuko dau. Barikuan, guraso alkarteak antolatuta, arrastiko hiruretan hasiko da Aratuste jaialdia frontoian. 17:00etatik 18:30era arte jantzaldia egongo da, Zumba eta ostean txokolatea.

Hurrengo egunean, Errugbi taldekoak antolatuta, jaia herri bazkariagaz hasiko da. Umeentzako Zastaparrak antolatutako jolasak egongo dira lau t'erdietatik aurrera eta bostetan mozorro lehiaketan parte hartzeako izen emotea izango da. Jokaldi taldeagaz erromeria egongo da giroa animetako eta gero sari banaketea, mozorrorik onena sarituteko.

Lemoan be hilaren 14an egingo da Aratuste jaia. Umeentzako festa kiroldegian izango da lauretatik zazpiretara. Bertan, Irrati gunea, Fotomaton gunea, Haur parkea, txokolatea eta disko festa ibiltokiagaz izango dabe gatzetxoan ondo

## ARANTZAZU

**Haur Eskolea zabaldu dabe**

Arantzazuko Haur Eskoleak zabaldu ditu ateak. Ordutegi malgua dauka. Astelehenetik barikura, goizeko zazpiretatik, arrastiko zazpirak arte egongo da zabalik eta umeak hile osoan zein ordu solteetan egon daitezke eskolan.

**Erredakzioa**

Matrikulazioa urte osoan dago zabalik. Hilabete osoan, astelehenetik barikura matrikulau ezker, prezioa desbardina da 5 ordu baino gehiago izan edo 5 ordu baino gutxiago bada, 200 euro eta 150 hurrengo hurrengo. Ordu solteak, barriz, 10 eurotan dagoz. Jantoki zerbitzua be badago Arantzazuko Haur Eskolan, hilean 30 euroko prezioan.

Metodologiari jagokonean, Emmi Pikler-en metodologia erabiliko daua dino Ainhize Abinagoitz Arantzazuko Haur Eskolako arduradunak. Autonomian, afektibitatean eta beste balore pedagogikoetan oinarritzen da metodologia hau.

**Autoenplegu programak launduta**

Arantzazuko Udalak aspalditik eukan gogoia herrian Haur Eskola bat ipinteko. Instalazioak egin da egoazan, baina Haur Eskola publiko bat martxan jarteko, 5 umek emon behar eben izena eta "Arantzazun edade horretako

**Arantzazuko Haur Eskolea.**

13 ume egon arren, ez zan lortzean 5ek batera izena emotea" azaldu deutso BEGITURI Begoña Llano Arantzazuko alkateak. Hori dala eta, Foru Aldundiko autoenplegu programea eta Arantzazuko Udaleko autoenplegu pro-

gramea baliatuz, Haur Eskolea martxan ipintea lortu dabe. "Foru Aldundiak ondo balorau eban Abinagoitzen proiektua, eta, hori ikusita, Udalak instalazioak itxi deutzaz debalde lehenengo urtebete t'erdian".

**Pertsonagintzan... (0-16)**  
**KARMENGO AMA IKASTETXEA**

AMOREBIETA-ETXANO

**Matrikulazioa: otsailak 2 - 13**

Twitter: EGIN ZAITEZ LAGUN!

Tfnoa: 94-6730935  
www.karmengoama.net

IKASKETA KOOPERATIBOA  
CURRICULUM ANITZEKO PROGRAMA  
FIRST LEGO LEAGUE  
ZERBITZUAK - Robotika + ...  
HIZKUNTZA TRATAMEN BATERATUA  
EUSKERA  
EUSKAL KULTURA  
JASANGARRITASUNA  
ALKARTASUN Proiektua  
Giza eta Kristau Baloreak  
ALEMANIA

Ke kristau-askola  
Q 2008  
Eskola Jasangarri Zuztagina  
Mibarri programa  
Bikain

## ARRATIA

# Arratiako garapenaren jardunaldien ostean, lanean jarraituko dauan taldea osotuko dabe

### Erredakzinoa

2014ko abenduan eta 2015eko urtailan zehar, Lemoa, Igorre eta Dimako alkatetzak antolatuta, Arratiaren garapenerako jardunaldiak izan ziran. Orain, Arratia Garatuteren beharrea jarraituko dauan lan talde bat osotuko da, bertan egindako beharri jarraituena emoteko.

Lau jardunalditan hainbat esperientzia ezagutera emon ebezan Euskal Herria eta mundu mailan beharrea dabizana adituak. Tokiko Garapenaren inguruan ezagutzak emon ebezan,

eta ezagutza horreek, eskualdeen errealidadetik era praktikoan be ezetuteko aukerea izan eben partaideak. Tolosaldea, Sakana eta Lea Artibain daborduko garatuta dagozan esperientzien barri emon eben Igorren.

Jardunaldietako aurkezpenak Lemoa, Igorre eta Dimako Udalen webguneetan izango dira, gura dauan guztiak ikusi ahal izateko.

**Arratia garatuteko lan taldea** Jardunaldi honeetan bertokoen parte hartze aktiboa garrantzitsua izan da. Eta parte hartze horretara



Jardunaldietako partaideak beharrea.

atik atera da Arratiako garapenean lanean jarraituteko lan taldea osotu behar dala.

Horretarako zezeilaren 12an, arrastiko 18:30ean lanerako motorra izango dan taldea batuko da Igorreko Kultur Etxean. Taldean, gazte, heldu, neska, mutil, sektore

eta erakunde desbardineta pertsonak eta gai honetan lan egiteko gogoia daukien guztiak izango dabe lekua. Parte hartu gura dabenak arratiagaratzen@hotmail.com-era idatzi edo Igorre, Lemoa edo Dimako Udaletan holan adierazoz behar dabe.

## IGORRE

# Bigarren pediatrea egongo da

### Erredakzinoa

Osakidetzak, Igorreko Osasun Zentroan beste pediatra bat ipintea onartu dau eta lanpostua beteteko deialdia zabaldu dau. Arratiako hainbat udal ordezkari batuko dira Osakidetzakoak hilaren 16an, jakiteko nozitik aurrera egongo dan pediatra barria.

Abenduan, bigarren pediatrea eskatzeko konzentrazioa egin eben erabiltzaileak Igorren. Izan be, bertako pediatreak Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeanuriko 1.300 ume inguru artatuten ditu. Lan karga hau gehiegizkoa da kalidadezko atezinoan bermatzeko eta orain dala urtebete baino gehiago, bertako pediatrea lanaldi osoko beste mediku bat eskatzen hasi zan.

## IGORRE

# Enpresa Batzordeko presidentea kaleratu dau Negarrak

### Erredakzinoa

Igorreko Negarra enpresako beharginak ordu biko alkarretaratzea egin eben urtailaren 23an talle-raren aurrean. Izan be, Negarrak, Enpresa Batzordeko presidentea eta CCOOko ordezkari dan Alvaro Ruiz kaleratu dau eta honeri babesa emoteaz gainera, enpresearen sindikatuen kontrako jarkerea salatu gura izan eben bertako beharginak. Enpresa Batzordeko presidentearen kaleratzea auzitara eroan dau sindikatuak.

Orain dala urte bi, Negarrak 30 behargin kaleratu ebazan, hamasei CCOO sindikatuak eta Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenak baliobakotu ebazan kaleratzeok, askatasun sindikalaren

kontrakoak ziralakoan. "Enpre-seak ezabatu gura ditu lan harremanak enpresa barruan eta horretarako kasurik egin barik, alde batera ixten dau enpresa komitea



Negarrako beharginak konzentrazioan.

modu sistematikoan. Batu be ez da egiten eurekaz" azaldu eutsan BEGITUri Javi Gomez CCOO sindikatuko Euskadiko Industria Idazkari Nagusiak.

Enpreseari "jarkerea aldatuteko eta egoerea normalizetako" eskatzen deusie ordezkari sindikalak "akordioetara heldu ahal izateko edo ez", baina mahai baten jarrita eta ahalegina eginda.

## ARRATIA

# BEGITUREN irakurleak eta Korrika

### Erredakzinoa



Arratia, Ubide eta Zeberioko jentea euskerearen alde mobidu egiten dana badakigu. Galapan egitea be askori gustetan jakona be bai. Eta orain jakin gura dogu ea gure irakurleak martian egingo dan 19.

Korrikan parte hartuko daben. Hona hemen itauna: Parte hartuko dozu Korrikan?

Eta erantzun posibleak:

- Bai, galapan egingo dot Arratian, Ubiden edo Zeberion.
- Bai, Bilbora joango naz amaierako jaira.
- Bai, biak edota beste modu baten hartuko dot parte.
- Ez.

### Loteriak diru gitxi itxi deutse gure irakurleai

Gure inkesteari erantzun deusien irakurleak ez dabe dirurik irabazi loteriagaz. Izan be, inork ez dau erantzun jokaturako beste edo jokaturakoa baino diru gehiago tokau jakonik. Erantzun guztiak "ez" edo "jokaturakoa baino gitxiago" izan dira.

## BEDIA

# Incoesako beharginak kaleratzea baimentzen eban autoa bertan behera itxi dau EAEko Auzitegi Nagusiak

### Erredakzinoa

LAB sindikatuak jakitera emon dauanaren arabera, urtailaren 21ean, Incoesako beharginak EAEko Auzitegi Nagusiaren sententzia jaso eben.

Sententzia honetan, Bediako lantokiko behargin guztien kaleratzea baimendu eban Merkataritza Epaitegiko autoa bertan behera ixten dau. LABek modu positiboan balorau dau hau, argi geratu dalako lantegia

zarratuteak ez eutsala beharizan bateri erantzuten, produkzioa deslokalizetako ebatzi enpresariari baino.

Incoesako beharginak luzaro egon ziran burrukan lantegia zarratu

eta produkzioa Extremadura eta Soriara ez eroateko. Burruka horretan beharginen aldeko hainbat ebazpen judizial egon ziran, baina

2014ko maiatzaren 23an, epaileak kaleratzeak baimendu ebazan. Orain, Auzitegi Nagusiak epai hori bertan behera itxi dau.



**MURIAS TXIRRINDULARI TALDEA**

# Murias Taldeak hasi dau bere ibilbidea

Mallorca Challenge-a da Murias txirrindulari talde profesionalaren lehenengo lasterketea. Urtailaren 29an hasi eta zezeilaren 1ean amaitu zan. Aurreko zapatuan eta aurkezpen moduan, taldeak Gasteizetik Igorreko San Kristobalerainoko ibilbidea egin eban. Hemen, Arratiako Ziklista Elkartearen sorlekuan, auzoko abadeak bedenkazinoa emon eutsan taldeari.



Murias taldeko txirrindulariak Jon Odriozolagaz.

etorri ziran, Arratiara, Igorreko San Kristobal auzoan, "talde honen bi-hotzean" amaituteko.

San Kristobal auzoan jaio zan Igorreko ziklo-krosa, orain dala 38 urte. Hiru urte beranduago antolatzaileak AZE sortu eben. "Aurten 35 urte dira ziklista alkarteja jaio zala. Urte horretan hasi ginan eskolak emoten, kadete eta gazte mailan, afizionau mailan, eta orain Muriaseri esker, talde profesionala daukagu, guretzako gure lanaren azken erregalua izan dana, handiena gure historian" esan eban Ander Gorospe AZEko fundatzaileetakoak.

**Talde lana**

Jon Odriozolak taldea aurrea ateratako jente askoren lana behar dala eta talde lana inportantea dala azpimarratu gura dau. AZEko presidentea, Muriaseko enpresaria, mekanikoa, txirrindulariak, kirol zuzendaria... "talde lana da eta hemen ez dago inor bata bestearen aurretik, danok daukaguz gure beharrak eta gure eginbeharrak. Ondo egiteko dana ondo planifikatu egon behar da eta bakotzak berari zer toketan jakin behar dau. Holan, danok alkarregaz behar egin da, nik uste dot proiektu hau aurrera aterateko kapazak izango garala".

**Ekipoa**

Hamabi txirrindularik osotuten dabe Murias Taldea. Horretatik hiru Arratiako Opel Ibaigane taldean ibilitakoak: Ander Barreneetxea, Mikel Bizkarra eta Adrian Gonzalez.

**Erredakzinoa**

Murias Gipuzkoako eraikuntza enpresek eta Arratiako Ziklista Elkarteak sortu eben talde hau igazko urrietan, AZEK talde pro-


fesional bat eukiteko eta euskal selekzinoa izateko asmoagaz. "Nik uste dot talde hau euskal selekzinoa izan behar dala, bai, hori da helburua. Azken finean napar, arabar, gipuzkoar eta biz-

kaitarrakaz osotutako talde bat da, euskaldun talde bat da, eta euskal selekzinoa izan behar da. Gura doguna da danok honegaz identifiketea eta hau aurrera eroatea" dino Jon Odriozola Murias


taldeko kirol zuzendariak.

Horregaitik, urtailaren 24an, ibilbidea Gasteizen hasi eben, Arratiara. Gero, Gipuzkoatik joan ziran, Arrasatetik, eta Oñatitik, Odriozolaren etxe ondok. Azkenik, Bizkaira

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsinoa  
Lentilen adaptazinoa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Salbino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

**24h**  
**EGUNEKO OGIA**  
vendim pan  
**IGORRE**  
Lehendakari Agirre

  
**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**Kili-Kili**  
Umeen denda  
94 673 63 51  
Agirre Lehendakaria 10  
Igorre  
[kilikigorre@gmail.com](mailto:kilikigorre@gmail.com)

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08  
**Andra Mari Klinikea**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1. Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak  
Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

  
mediku naturista  
argatzeko terapia  
kosmetika naturala  
elikagai biologikoak  
zeliakoentzat elikagaiak  
estetzierna  
Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39



**Aritz Bagües Kalparsoro**  
(Errenteria, 1989)  
Amateur/Gipuzkoa

**Ander Barrenetxea Uriarte**  
(Galdakao, 1992)  
Amateur/Opel Ibaigane

**Mikel Bizkarra Etxegibel**  
(Mañaria, 1989)  
Gomur

**Garikoitz Bravo Oiarbide**  
(Lazkao, 1989)  
Epafel/Galssdriv

**Imanol Estevez Salas**  
(Gasteiz, 1993)  
Amateur/Zirauna

**Egoitz Garcia Etxegibel**  
(Atxondo, 1986)  
Cofidis

**Adrian Gonzalez Velasco**  
(Burgos, 1992)  
Amateur/Opel Ibaigane

**Jon Ander Insausti Irastorza**  
(Mutiloa, 1992)  
Amateur/Gipuzkoa

**Unai Intziarte Muñoz**  
(Donostia, 1991)  
Amateur/Gipuzkoa

**Eneko Lizarralde Delgado**  
(Bergara, 1993)  
Amateur/Gipuzkoa

**Haritz Orbe Urrutia**  
(Gernika, 1991)  
Euskadi

**Beñat Txoperena Matxikote**  
(Igantzi, 1991)  
Euskadi

Taldeko zuzendaria, Jon Odriozola Mugarza (Oñati, 1970) tirindulari profesionala izandakoa da. Gewiss taldean hasi eban bere ibilbidea 1995ean, eta 1998an Banesto taldeak fitxau eban. Urte haretan, Espainiako Itzulia irabazi eban taldeko partaidea izan zan Odriozola: Abraham Olanok lortu eban lehenengo postua eta berak hamabigarrena. 2004ra arte ibili zan lehian, garai- pen asko lortuz. Atzen urtea Kelmen egin eban. Lehiatzeari itxita, Orbea taldeko kirol-zuzendari izan zan eta Euskaltel-Euskadikoa ondoren.



Jon Odriozola eta Jon Redondo, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol zuzendaria.



Martin Zurinaga eta Anastasio Azkarai abadea.

"Nik uste dot talde hau euskal selekzinoa izan behar dala, bai, hori da helburua"

**begitu**  
arratia ubide zeberio

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**www.begitu.org**

## TXIRRINDULARITZEA

## Julen Bilbao: "Jenteak aprezio berezia deutso Igorreko ziklo-kros zirkuituari"



Sergio Turuelo txirrindularia Julen Bilbaogaz.

## Irati Urien

Julen Bilbaok ziklo-krosa dauka pasino. Orain dala bost urte Mikel Nuñezi lagunduten eutsan kontrolean, Sergio Turuelori egun. Kiromasajista dan aldetik, Ugaoko ziklismo taldean be ibili zan masajista eta laguntzaile moduan.

Urrian hasi eta urtailean amaitu da ziklo-kros tenporadea. Llanes, Medina de Pomar, Villarcayo, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba... astebururo egon dira lasterketak eta igorretarra ia danetara joan da. Zintea pasau eta bera izango da laster lupetz artean ikusiko doguna.

## Nondik jatorzu ziklo-kroserako afizinoa?

Nahiz eta hamasei urtera arte futbolearen ibili txikitatik euki dot ziklo-kroserako afizino handia. Igorreko eskolan ikasten nebanean Juan Mari Zurinaga eta konpainia etorten ziran eta konbiteak emoten euskuezan Igorreko lasterketea ikusteko. Munduko Koparako baliagarria zan probea orduan: Sven Nys, Daniele Pontoni, Jiri Pospisil, Mario Declercq, Kevin Pawels... nazinoarteko izarrak ikusteko aukerea eukiten neban eta ilusinoa egiten eustan.

## Bistan da urteokaz Igorreko lasterketearen izena mailaz bajatu dala...

Ziklo-krosak gero eta afizino handiagoa dauka. Pasetan dana da Ander Gorospek eta Juan Mari Zurinagaz

esaten daben moduan atzanean Munduko Kopa bat eukiteko diru kopuru bat behar dala. Momentu honetan daukagun egoera ekonomikoa dala eta, ezin geinke holako karrera bat euki. Belgiarrak, holandarrak, txekiarak... munduko onenak dotoz eta horreei ordaindu egin behar jakie, eta ez ehun edo mila euro. Sariak emon behar dira eta azpiegitura aldetik be kostu handia suposatuten dau. Aitutekoa da. Niri be penea emoten deusta holako jentea hemen ez eukitea, baina ezin danean konformau behar gara. Gata izango da, baina ia berreskuratu leiteken. Nahiz eta orain Munduko Kopa ez izan, jenteak aprezio berezia deutso Igorreko lasterketeari, "la catedral del ciclo-cross" esaten deutsie. Espainia guztitik etorten da jentea, Valentziatik, Madriletik...

## San Kristobalekoan egonda zagoz. Ze gurago dozu, ha edo gaur egungoa?

Niretzako oraingoa, eta ziklo-kroseroan dabilen gehiengoarentzat be bai. San Kristobalen dana gorantza edo beherantza zan, lisu barik apenas. Sano gogorra eta arriskutsua zan, askok bildurra eukiten eben. Gaur egungoa erakargarriagoa da niretzat. Kokatuten zaran lekuaren arabera ia lasterketa osoa ikusi zeinke eta horrek ikusten datorrenari asko lagunduten deutso.

## Eta ostean, badaukazu zirkuitu faboritorik?

Bai, Puente Viesgokoa (Kantabria). Ez dakit zergaitik dan baina nire moduan jente askori pasetan jako. Sinpatia berezi bat deusat zirkuito horeri, tirituten deustan zeozer dauka.

## Eta korredore bat?

Sven Nys. Etxean gela bat daukat beren-beregi bere posterrakaz eta. Lagunak daukaguz komunean; izan be arpegi nahiko handia daukat, ez daukat lotsarik. Lagun batek zeozer gura izan ezkerro berari eskatuteko esaten deusta eta gero berak niri Euskal Herrikoak eskatuten deustaz, asko gustetan jakolako zonalde hau. Argazkiak, posterrak, txapelak... dannerik daukat. Erreza da beronen fan izatea, adibidez futbolearen Messi edo Cristiano Ronaldo diran moduan, ziklo-kroseroan Nys izango leiteke izarra.

## Castro Urdialeseko Sergio Turuelori lagunduten deustazu. Zetan zehatz esanda?

Jenteak gu mekanikoak garala esaten dau. Nire kasuan adibidez Sergiok kanbioak eta plantillak hainbeste apurtuten dauz, eta horren kontra ezin leiteke ezer egin. Orokorrean zera izaten da, nik bizikletea ondo preparautu eta garbigarbi eukiten dot bera lupeztuta datorrenean eroan dagian. Barria emon eta ni txarritu dagoanagaz geldituten naz, berau be ahal danik eta ondoen garbitu eta hurrengo bueltan behar badau prest eukiten dot. Erraminta batzuk eroan zeinkez boltsikoan baina zeozer apurtuten bada normalean ez dau erremediorik eukiten; orduan beste bizikleteagaz segidu behar izaten da, daukanak, askok ez daukie eta bigarrenik.

## Zein da ziklo-kroserako eguraldi egokiena, eta ondorioz zelan

## egon behar dau zirkuitoak?

Lasterkari bakotzak daukan preparazioaren arabera da hori. Sergiori adibidez asko gustetan jako lupeztuta egotea baina horrek teknika euki behar dozula suposatuten dau eta ilusino handia baina teknika askorik ez dauka. Zenbat eta lupetz gehiago hobeto esaten dabenak teknika handia daukielako da. Ezpabere badago jentea horrenbeste teknika ez daukana baina fondoa eta indar asko bai, orduan siku egotea gura dabe honeek. Zintetatik kanpora ikusten dagoan jentearentzat, barriz, zenbat eta lupetz gehiago hobeto, ikusgarriagoa da.

## Arratiako korredoreak badaukie etorkizunik?

Bai. Master 30 kategorian Mikel Epalza Lemoakoa, Master 40 kategorian Manu Quintanilla igorretarra... Sano onak dira eta esperientzia handia daukie gainera. Naia Alzola be gogorra da, Bizkaiko Elite txapel-duna.

## Eta gaztetxoak? Badago kante-rarik?

Igorreko taldea nahiko flojo dago. Ez dakit zergaitik baina jentea kanpora joaten da. Kanpora esan gura dot Durangora, Ugaora... Hemen ez dago hainbesteko afizinoarik holango gauzetan zertuteko herrian.

## Parte hartutera animau zara. Zelan doa kontu hori?

Bi urte daroadaz: bai, ez, bai, ez... kostau jata baina atzanean atera dodaz patrozinadore batzuk. Bat falta jata. Bizikletea be hartuta daukat, datorren astean eukiko dot esku artean. Datorren tenporadan hasiko naz. Orain Palenciaiko lasterketa baterako prestetan nabil, 165km. koa. Honek be lagunduko deusta zeozelan esatearren, esperientzia hartzeako.



**BILBOTIK DURANGO  
ETA ARRATIARAKO  
TRANBIA  
ELEKTRIKOA.  
50 URTE ARRATIAKO  
TRANBIA BARIK**

BARCELIA      ANTOIATZALEIA

LAGUNTZALEAK



**ERAKUSKETEIA ZEANURIN Manterolatarran Aretoan  
URTAILAREN 30etik ZEZEILAREN 10era**  
Astelehenetik barikura 17:00etatik 19:00etara  
Zapatu eta domeketan 11:00etatik 13:00etara

**ERAKUSKETEIA IGORREN Lasarte Aretoan  
ZEZEILAREN 13tik 27ra**  
**INAUGURAZINO EKITALDIA ZEZEILAREN 13an, 19:00etan**

## KIROLA

## Kirol medikuntzako unidate mobikorra Diman

## Erredakzinoa

Kirol medikuntzako unidate mobikorra Diman egongo da hilaren 16tik 20ra. Azterketa medikua egitea gura dabenak udaletxera deitu behar dabe edo mezu bat bialdu kultura.dima@bizkaia.org helbidera hilaren 8a baino lehenago. Hezkuntza Fisikoaren eta Kirolaren Medikuntzan aditu talde batek lokomozino-aparatua, bihotza eta odolaren zirkulazioa, eta arnasa-aparatua aztertuko deutsez erabiltzailei. Ahalegin-proba bat egingo deutsee eta proba horren bitartez, orientazioa eskeini eta zer ariketa egitea komeni jakon, zenbat eta zer intentsidadetan esango jako proba

egin dauan personeari.

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako kanpaina honek, udalerririk antolatzen dituen kirol programean eraginkortasun eta segurtasuna hobetzea dauka helburu. Batez be udaletako kirol instalazioak erabilten dituen herritarri zuzendutako ekimena da. Medikua azterketa orokorrak eta espezifikoko egingo jakiez erabiltzailei, eta, aholkuak eta jarraibideak emongo jakiez, euren ebaluazio fisikoan anomaliaren bat topatu ezkerro, ha zuzendu ahal izateko.

Azken zikloan, kirol medikuntzako 804 azterketa egin ziran (309 gizon eta 495 andrari), 38 udalerritan. Udalerriak eurak eskatu behar dabe azterketak egitea.

## MENDIA

# Txikonon erronka barria: Nanga Parbat neguan

### Erredakzioa

Txinak baimenik emon ez eta bertan behera geratu behar izan zan K2rako neguko espedizioa, bai-



Alex Txikon.

na Alex Txikon ez da horregaitik zortzimilako bat eskaletan saiatu barik geratuko eta laster baten ekin deutso beste erronka bateri: Nanga Parbat (8.126 m.) neguan eskalatzeari. Pakistango Muhammad Ali "Sadpara" eta Muhammad Khan mendizaleakaz batera.

Urtailaren 19an urten zan Txikon Bilbotik Islamabaderantza eta zezeilaren 1ean, beheko kanpamentuan egotea espero dau. Orain arte Txikonek ez dau Nanga Parbateko tontorra zapaldu, lortu ezker mendi hau egiten dauan lehenengo aldia izango litzateke. Gainera, eskalatzaila asko saiatu diran arren, inork ez dau lortu ondino tontor hau neguan egitea. Erronka handia da beraz, Txikonek hartutakoa.

## PELOTEA

# Zeanurik txapel bi eta Areatzak bat Arratia-Nerbioi Txapelketan

### Erredakzioa

Urtilaren 24an jokatu zan Arratia-Nerbioi pelota eskolen arteko txapelketaren finala Zeanuriko frontoian. Goizean, Kadeteak, Gazteak eta Nagusiak 22 tantutarako partidua jokatu ebezan. Areatzak lortu eban Gazteak kategoriako txapela, anfitroiarri irabazita. Arrastian, barriz, txapel bi lortu ebezan Zeanurik: bata Aurreumetxoak kategorian, eta bestea, Umeak kategorian. Lemoa eta Dima azpitxapeldun izan ziran Umetxoak eta Gazteak kategorietan hurrengo hurrengo.

Arrastiko partidua hasi aurretik, ehundaka umek hartu eban parte desfilean: Areatza, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Dima, Igorre, Lemoa, Orozko, Zeanuri eta Zornotzako pelota eskolako ume eta gazteak. Aldaketak egon dira aurten partiduen emoitza zenbatuteko moduan. Ume guztien partaidetza bardin antzekoa izan daiten, 18 tantutara jokatu beharrean, parti-

du bi jokatu ebezan 10 tantutara. Lehenengoan aurrelari ziranak atzean jokatu behar izan eban bigarren partiduan, eta alderantziz. Talde bakotzak partidu bat irabazi ezker, bardinketea apurtuteko hirugarren bat jokatu behar zan 5 tantutara. Hirugarren zatia jokatu beharra, behin bakarrik gertatu zan, Gazteak kategorian. Sano bardinduta egon ziran Zornotza eta Dimakoak. Atzenean Zornotzakoak irabazi eban 9-10, 10-9 eta 5-3.

### Emoitza

Aurreumetxoak: Zornotza 5; Zeanuri 18.

Umetxoak: Lemoa 7, 6; Arrigorriaga 10, 10.


Umeak: Orozko 8, 6; Zeanuri 10, 10.

Gazteak: Zornotza 9, 10, 5; Dima 10, 9, 3.

Kadeteak: Usansolo 16; Orozko 22.

Gazteak: Areatza 22; Zeanuri 8.

Nagusiak: Zornotza 22; Zeanuri 21.



Igorre eta Lemoako umeak Zeanurin.

## MENDIA

# Igorreko Udalak panelak ipiniko dauz hainbat mendi ibilbidetan

### Erredakzioa

Igorren egin leitezkan 6-10 ibilbide zehazten lagundu eban jubiladu talde batek Udalak eskatuta. 2015 urtean oinezko ibilbide honek panel batzuetan ipini eta herrian bi edo hiru panel ipinteko asmoa dauka Udalak. Jadanik ibilbideok panelak prestatuko dituan enpresearen eskuetan dagozala jakinarazo deutso Beinat Anzola Igorreko alkateak BEGURI. "Lehen diseinua eskuetan daukagu eta zuzenketak egin ondoren ahal bezain laster bidaliko doguz behin betiko panelak egitera".

Ibilbideak egiteko jubiladuen alkartekoen laguntza euki dabe. Ibilbide batzuk jubiladuak proposatu ebezan eta GPS bidez marketako eskatu eutseen Udaletik, zehatz kokatu ahal izateko mapetan. Gainera, bidearen zailtasuna deskribidu eta topatzen ebezan miradoreak, iturriak, arbol bereziak eta abar, seinalizatzeko be eskatu jakien.



Igorre Otxasetik ikusita.

### Herriko ibilbideak

Herriko alde desbardinak ibilbideren baten kokatzea zan betebeharreko baldintza bat; hau da, San Kristo-balgo aldea Dimarantza zabalduetea; Loiate inguru Belatxikietarantza zabalduetea; Zaztegia eta Igorrebaso inguruak ikututea, eta Arginatx ingururantz hurreratzea. Gainera, gune honeetatik be pasau behar ziran

ibilbideok: Getaluetako kanteratik, Otxaseko kobazulotik, Atxarteko kobatik, Lamin iturritik, industrialdeko zubi barrizatutik eta Industrialdea eta San Juan oinezbidetik.

Udalak eta jubiladu alkateta pozik agertu dira egindako alkarlana dala eta. Lan honen emoitza laster izango da ikusgai ipiniko diran paneletan.

## ZIKLO-KROSA

# Amaitu da ziklo-kros denporaldia

### Erredakzioa

Denporaldi honetako atzen ziklo-kros lasterketea Abadiñon izan zan urtilaren 24an. Han, Arratiako ziklo-krosleri bi igon ziran podiumera: Naia Alzola Elite kategorian, eta Mikel Epalza Master 30ean.

Sano denporaldi ona egin dabe Arratiakoak, batez be Elite eta Master kategorietan. Astebe-te lehenago be, urtilaren 18an, lupetzaz betetako Gueñesko zirkuituan, Naia Alzolak hirugarren egin eban eta Mikel Epalzak laugarren.

2015eko lehenengo lasterketea Ormaiztegin izan zan urtilaren 4an. Zirkuitua gogorra eta aldapatsua zan, jeitsiera sano arriskutsuagaz. Han be Arratiakoak Elite eta Master kategorietan nagusitu ziran. Eliten, Naia Alzolak 4. egin eban andrazkoetan eta Julen Zuberok 5. gizonetakoetan. Ormaiztegin, Manu Quintanillak lortu eban Arratiakoaren artean emoitzarik onena, bigarren egin eban eta Master 40 kategorian. Mikel Epalza be igon zan podiumera hirugarren eginda Master 30 kategorian.

## MENDIA

# Kolazinoko Mendi Eguneko probetan parte hartzeako epea zabalik

### Erredakzioa

Martiaren 28an izango da I. Kolazinoko Mendi Eguna. Hiru proba egingo dira: mendi martxea, BTT martxea eta mendi lasterketea. Izena emoteko epea zabalik dago martiaren 20ra arte, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean.

Proba guztiak Bediako plazan izango dabe urtekera eta amaiera. BTT martxeak 33 km.ko ibilbidea izango dau, 1.300 metroko desnibelagaz; mendi martxeak eta mendi lasterketeak, barriz, 23 km. izango ditue, 1094 metroko desnibelagaz.

Parte hartzeako prezioak bateratu dabez eta 15 euro izango dira federauta dagozanantz eta 18 federatu bakoentzat. Partaide kopurua mugatua izango da, gutzira 500 gehienez.

### Bazkaria eta erromeria

Bediak antolatutako ekimen honen helburu nagusia "herritarrak biltzea" da eta lasterketearen ondoren parte hartzaile guztientzat bazkaria egongo da eta gero erromeria.

Informazio gehiago <http://kolazinokomendieguna.wordpress.com> gunean.



## LEHIAKETEAK

**Asier Urbietaren *Arconada* filmak irabazi dau Luzetu Barik Lehiaketea**

Urtilaren 16an izan zan Igorren Luzetu Barik film laburren lehiaketako sari banaketea. Kategoriarokorrean, Asier Urbietaren, *Arconada* izan zan epaimahaiaren ustez, film onena. Ibon Izaren *Txakile* filmak barriz, Arratiako film onenari saria lortu eban.

**Erredakzioa**

Ume eta Gazte kategorietan, *Eraztunaren sekretua* eta *Hilzorion* izan ziran saridunak hurrengo. Sari banaketa ekitaldian Ume eta Gazte kategorietan aurkeztutako guztiak erakutsi ziran, baina Nagusien kategorian, hamar onenak.

Hirugarren edizioa izan da aurtengoa. Arratiako lehiaketa moduan hasi zan Luzetu Barik Lehiaketea baina sendotzen eta egonkortzen joan da eta aurten 21 film labur aurkeztu dira. Kategoriarokorrean hamalau film aurkeztu ziran. Mila euroko saria Asier Urbietaren *Arconada* filmagaitik. Filmak, *Arconada* futbol atezaina

izan gura dauan ume daltoniko baten istorioa kontetan dau.

Arratiako film onenak be 600 euroko saria izan eban. Hau Ibon Izaren *Txakile* filmarentzat izan zan. Diman grabauta dago eta lan ekipoa be Arratiakoa da.

**Ume kategoria barria**

Kategoria barria izan dau aurten Luzetu Barik Lehiaketeak, 7 eta 14 urte bitarteko umeentzakoak, hain zuzen be. Film bi aurkeztu ziran kategoriarokorrean eta Ibai Zarrabeitia, Joseba Murgoitio, Ibai Gomez eta Mario Fernandezek *Eraztunaren sekretua* filmak eron eban 200 euroko saria. Ludotekako umeak egindako *Printzesa rokerak* filma be lan polita izan zan eta gozokiak eron eban ziran eurentzat.

***Txakile*, Arratiako film onenaren saria eron eban.**

15 eta 25 urte bitarteko Gazte kategorian 5 lan aurkeztu ziran. Unai Portillaren *Hilzorion* filma izan zan onena epaimahaiaren eretxian eta 500 euroko

saria jaso eban.

**Ibon Izaren lanak Arratiako film onenari saria jaso dau**  
Ibon Iza Dimakoak jaso eban

Arratiako film onenari saria *Txakile* filmagaitik. Istorioa oroi-menean gordetzen doguzan oroitzen dago oinarrituta. Auzotarren arteko bola lehiaketa bat dago. Gertakizunak edadeko gizon batek kontetan dauz, bere umearoko gogorapenak ekarritik. "Txakila edo txakina da bola munduan dagoan txirlorik txikiena, baina txikia izan arren, bera joteak emoten dau punturik gehien. Pasadizo txikiak be batzuetan denporearen joanagaz handitasuna hartzen dabe. Sano metaforikoa da filma, Euskal Herriagaz eta ohiturakaz lotua, txikiak gara baina era berean baliotsuak eta handiak. Jesus Eguzkitza "Eguzki" off abotsa egitea be gure oroitzen keinu bat da, gutako asko bere abotsagaz hasi ginan eta" azaldu deutso Ibon Iza zuzendariak BEGUTURI.

*Txakile* Dimako Oba auzoan grabauta dago eta aktore gehienak dimoztarrak dira. Gidoia Urtzi Uriarte eta Julen Agirrezabalak egin dabe, kamara beharrak eta montajea Joseba Rodriguezek egin dauz eta musikea Borja Estankonarena da.

Aktore lanetan, Zefe Ziarrusta, Jose Luis Artabe, Lur Ziarrusta, Bego Esparta, Jon Loiola, Ruben Gumuzio, Gotzon Aurrekoetxea, Beñat Artabe, Maitane Iza, Haizea Ziarrusta, Kepa Intxausti, Aratz Sargana, Xabi Atutxa, Ibon Gurtubai, Urtzi Uriarte, Ibon Iza, Juan Mari Aurtenetxe eta beste asko.

## SAN BALENDIN

**San Balendin Eleizondon (Zeanuri): Piedadeko artea zenbat hazi dan neurtuteko eguna****Jon Urutxurtu**

Urtero lez, aurten be San Balendin jaiak ospatuko dira Zeanuriko Eleizondon auzoan, Piedadea izenaz ezagutzen dan ermitearen inguruan, zezeilaren 14an, zapatuan, San Balendin egun berean.

Egitaraua apala, baina, aldi berean, bitxia antolatuko dabe eleizondoztarrak: 11:30ean mezea izango da Andra Mari parrokian; meza ostean, San Balendinen irudia parrokian 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan, datorren urtera arte bertan itxeko, eta jarraian ermitearen aurreko artearen neurtetari ekingo deusie. Neurtetearen akta sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, Diniosia Zuluagari jagoko, baina bere semeak ordezkatuko dau, datorren urtekoari

agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasatuko deusaz. Ostean, barauskaria, urdaia, pamitxea eta ardaoa, bananduko da bertara hurreritzen diranen artean. Ekintza horreek herriko txistularien eta bertsularien kantuen artean egingo dira.

Egitarau honetan aitagarria da orain dala 56 urte eleizondoztarrak hasi eban eta orain dala zazpi urte, aldi batean bertan behera itxita egon ondoren, berreskuratu eta ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintzea: Piedadeko artearen neurtetea.

**Artearen neurtetea**

Pedro Lejarzaren, eleizondoztarrak eta antolatzaileetarikoa, arabera, "Piedadearen aurrean dagoan artea, lehenago leku berean egoan beste baten ordezkaria da; 1958 urtean landatu eban gure aurrekoak

Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan, gonbit egunean, batzuetan bazkalostean, eta beste batzuetan afalostean, jai giroan, bolanderak botatz, bertsoak abestuz... artea neurtu egiten eban. Neurtzeaz Gorordo baserriko Zeferino Lejarreta arduratzen zan. Eta neurtu ostean, jai amaitutzat emoten zan. Zeferinoren koademoetan lehen urteetako neurteten zehetasunak aurkitu doguz; lehenengo neurtetea 1959koa da, eta zera irakurri daiteke bertan: *La medida de la encina de la Piedad, en los años medidos. Grueso a la altura de 1,50: 0,18.*

Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta atzen neurtetea, Kandido Intxaurragak egin eban 1999an; papertxo baten zera idatzi eban: "Piedadeko artea. 99-2-14. a 1,50 circunf.: 1,50".

Aurrekoak hasitako ohitua ez dabe galtzean itxi gura eleizondoztarrak, eta maiordomoak dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz. Orain dala bost urte, Piedadeko artearen neurtetea

**Artea neurtuten.**

hasi zanetik 50 urte beteten ziran, ofizialtasuna emon gura izan geuntsan ohitura bitxi honeri, aurreantzean be jarraipena izan daian. Gainera, zugatzari neurri hartzeaz

Zeferino Lejarretaren semea, Gregorio Lejarreta arduratu zan eta bera izango da aurten be zeregin hori beteko dauana". Zenbat hazi ete da igazitik Piedadeko artea?



## ZINE KLUBA

# Barre egiteko zikloa Igorreko Zine Klubean



Carmina y amen filmaren irudia.

### Erredakzioa

Igorreko Zine Klubak, lurralde, zuzendari edo gai bateri eskeintzen deusaz zikloak eta 2015eko lehenengo umorezko pelikulai eskeini gura izan deutso. "Barrez lehertzen, kar, kar kar" titulupean hiru pelikula proiektuak dabez zezeil honetan, arrastiko zortziretan Lasarte Aretan. Lehenengo, hilaren 5ean Miranda July estadubatuarraren *Me and you and everyone we know* izango da; hilaren 12an, Erresuma Batuko Ben Wheatley-ren *Sightseers* ikusteko aukerea egongo da eta 19an, Paco León espainiarraren *Carmina y amen*.

*Me and you and everyone we know* komediako zuzendari, gidoi-gile eta protagonistea Miranda July da. Julyk egiten dauan pertsonajeak, Christine Jaspersonek persona nagusientzako egiten dau behar taxiak gidatzen, baina bere benetako pasino bideo artistikoak egitea da. Christinek Richard Swersey, seme biren aita banandu barria ezetuko dau eta hartu-emon erromantiko bat sortuko da bien artean. Hortik aurrera, gauzak konplikau egingo dira.

Hurrengo egunean, maitasuna-

gazko mesfidantzea, miseria eta moral faltea erakusten dauan film bategaz egingo dabe barre *Sightseers* ikusten joaten diranak. 2012ko pelikula honetan Ben Wheatleyk ezagutu barri dan bikote baten bajea kontetan deusku. Chrisek (Steve Oram) karabana hartu eta britaniar iriak bisitetako proposamena egiten deutso Tina (Alice Lowe) andregaiari. Baina bere psikopatia eta tendentzia makabroak azaleratzen doazen heinean, hasikeran opor lasaiak ziranak, laster kontu ilunagoa bihurtuko dira.

### Paco León-en filma

Zikloa barrez lehertzen amaituteko, Paco León zuzendari ezagunaren 2014ko *Carmina y amen* ikusteko aukerea egongo da Igorren. *Carmina o revienta* pelikulearen arrakastaren ostean, Paco Leónek "Carmina esperimentuan" sakontzeko egin eban film hau. Istorioa, Carminaren senarraren ezusteko heriotzearen ondoren hasten da. Orduan, kobretako eukan aparteko ordainsaria eskuratzeko asmoagaz, Carminak eta bere alaba Mariak, inori ezer ez esatea ebatzen dabe egun bi pasau arte. Egun bi horreetan, gorpua eta dolua ezkututuko dabez.

## ANTZERKIA

# Belaunaldien arteko loturearen gaineko hausnarketea egiten dau Arrastoak antzezlanak

### Erredakzioa

Dejabu Konpainiak *Arrastoak* antzezlan taularatuko dau hilaren 7an, Igorreko Kultur Etxean, arrastiko zortziretan. Antzezlan honen testua, antzele taldeak berak eta Oier Gillanek sortu dabe.

Antzezlanak belaunaldien ar-

teko lotura ikustezinai buruzko gogoetea egin gura dau, generazinoz generazinoz herentziaz eta askatu bako moronpilez berba egin. Planteamentu estetiko sakona eta errealitatea eta fantasiaren munduak nahasten ditu. Kontaera narratiboa dauka antzezlan honek eta pertsonajeen

eta objektuen trataera poetikoari garrantzia handia emoten jako.

*Arrastoak* sortu eta antzeztuko daben antzeleak, Miren Alkala, Urko Redondo, Iñigo Aranbarri eta Ainara Gurrutxaga dira.



## ERAKUSKETEAK

# Tranbiaren erakusketea Zeanuritik Igorrera

### Erredakzioa

Zeanuriko Manterolatarren Erakusketa Aretotik Igorreko Kultur Etxera eroango dabe oraingoan Zertu Kultur Elkarteak antolatutako Arratiako tranbiaren gaineko erakusketea. Zeanuriko zezeilaren 10era arte egongo da eta Igorren 13tik 27ra. Igorreko inaugurazio ekitaldixoa 13an izango da arrastiko 19:00etan. Zertu arratiarrak animau gura dauz 13an Igorrera hurbildu daitezcan hain erakusketa interesgarria ikustera.

Erakusketan, Jon Urutxurtuk atzen 10 urteetan batutako argazkiak, hemerroteka dokumentuak, grafikoak, eta abar ikusi daitezke. Baita Eusko Tren Burdinbidearen Euskal Museoko itxitako hiru maketa eta billeteak. Zine irudiak be ikusi daitezke bertan, Felipe

Manterolak eta Julian Elejostek grabatutakoak, Nodoaren irudiak eta Txomin Artetxe tranbiako kobratzaileari orain dala hamar urte egingako alkarizketea.

### Inaugurazioa

Erakusketearen inaugurazioan,

Juanjo Olaizolak, Burdinbidearen Museoko Zuzendariak Arratiako tranbiaren historia eta garrantziaren gainean egin eban berba Zeanuriko Kultur Etxean.

Arratia osoko jentea, eta kanpokoa batu zan bertan, ehun lagunetik gora, eta tranbiaren maketak ikusmin handia sortu eban.

2015 urte osoan zehar egongo da ikusgai erakusketa hau Zeanuri, Igorre, Lemoa, Galdakao, Areatza eta Bilbon.



Jente asko batu zan tranbiaren erakustetako inaugurazioan.

## DUNBA

# Zer da Formazino Dual-a?

### Zulaibar Lanbide Ikastegia

Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastetxeak txandakako hezkuntza duala buztartzen dauzan Dual Programea eskeintzen dau. Ikasketa aukera barritzailea da, gaitasun profesional, personal, nahiz sozialak hobetu gura dabezcan 30 urtetik beherako gazteak zuzendutakoak.

Txandakako formazinoa egiten dabenak, Lanbide Heziketako titulua lortu edo Profesionaltasun Ziurtagiria lortzeako aukerea daukie.

Programa honek enpresa zein ikasleentzat onurak ekarri ditu.

Enpresearentzako onurak: Gizarte Segurantzaren langileen kuotetan % 100eko bonifikazioa, ikasleko 2000€ jasoteko aukerea eta enpresak jarkera positiboa eta interesa daukien ikasleentzako interes hautatzeko aukerea izango dabe.

Ikaslearentzako onurak: gitxienez urtebeteko lan kontratua eta enpresako lanaren ezagutza sendoa.

2014-2015 ikasturte honetan Goi Mailako 8 ikasle izan doguz Formazino Dual Programearen

barruan, Haur Hezkuntzako ikasle bi eta Programazioaren Produktinoko sei.

Guztira sei enpresak hartu dabe parte: Araluce S.A. (Igorre) 3 ikaslegaz, Mecanizados Julza S.L. (Lemoa) ikasle bategaz, Ekin

S.Coop. (Zornotza) ikasle bategaz, Comecaran S.A.L. (Arantzazu) ikasle bategaz, Begoñazpi ikastolea (Bilbo) eta Jesus Maria ikastetxea (Bilbo).

Datorren ikasturtean Goi Mailako zikloetakoak ez ezik,



Zulaibargo ikasleak.

Erdi Mailako Mekanizazioa eta Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak zikloetan, Formazino Duala eskeintzeko asmoa daukagu.

Arratia eta inguruko enpresa guztiak animau gura doguz hurrengo urteetan programa honetan parte hartzera.

Eskerrik asko danoi Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiaren partez.



## AGENDEA

ZEZEILAK 2  
BEDIA

17:00etatik 20:00etara, eta hilaren 13ra arte, argazki erakusketea: 2014ko bigarren sei hilekoan egindako jarduerak. Liburutegian.

17:00etatik 20:00etara, hilaren 20ra arte, Udalak eraturako ikastaroetan izen emotea. Liburutegian.

## IGORRE

16:45ean, andren arteko topaketa interkulturalak, Kultur Etxean.

## ZEANURI

Erakusketea, *Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik*. Manterolatarren Aretoa.

ZEZEILAK 3  
IGORRE

19:30ean, Korrika Batzordea euskaltegian.

## ZEBERIO

San Blas jaiak Saldarain auzoan.

ZEZEILAK 4  
ARRATIA

Agate Deuna. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## BEDIA

17:00etan, auzorik auzo kantetan joateko plazan batu.

## IGORRE

17:00etan, trikitilariakaz kalejireia eskolatik urtenda; 18:30ean, eskolako aterpean talo jana eta Tostada Lehiaketea. Guraso Elkarrekin antolatuta.

## LEMOA

Santa Ageda bezperako kalejireia. 09:45ean, udaltxean, Arratiako Korua eta JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeko ikasleak. 18:30ean, udaltxetik hasita Lemoako Koralak, Arratiako Musika Eskolako trikitilariakaz, kanta kalejireia herrian zehar.

## ZEBERIO

Santaeskan herriko auzuneetatik.

ZEZEILAK 5  
IGORRE

20:00etan, Zine Kluba *Me and you and everyone you know*. Zuz.: Miranda July, 2005.

ZEZEILAK 6  
DIMA

18:30ean Etxean gura doguz-ek antolatuta, dispersioaren inguruan berba egiteko kafe-tertulia, herriko jentearen esperientziak. Gaztetxean. 19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa plazan.

## LEMOA

Ganzabal mendi taldeak antolatuta, hilaren 8ra arte, mendiko eskia eta raketak. Chipeta Alto (2.175 m.) Lariste (2.168 m.).

20:00etan, Lemoako Koralak antolatuta, kantu potea mailuki tabernatik hasita. Ibilbidea: Mailuki, "Caza y Pesca", Lemoas, Bikandi eta

Jubiladuen taberna.

## ZEANURI

18:00etan Gure Esku Dagoren ibilbidearen gaineko dokumentala Kultur Etxean.

ZEZEILAK 7  
AREATZA

17:00etan Makilajea eta ulea apaintzeko tailerra. AKKBK antolatuta.

21:00etan, The Romantics taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

## IGORRE

20:00etan, Dejabu Konpainiak *Arrastoak* antzezlan Lasarte Aretoa.



## Itxaro Borda Bediako Irakurle Klubean

Zezeilaren 12an, egunez, egongo da Itxaro Borda Bediako Irakurle Klubean arrastiko 19:00etan. Irakurleakaz komentauko dau bere atzen poema liburua *Zure hatzaren ez galtzeko* (Elkar, 2014).

Bere atzen liburu honen poema batzuen irakurrialdia egin eban idazleak Durangoko Azokan, txalo zaparrada handia jasoz. Izan be, bizi-indar handiko poema ezinederragoak osotuten dabe poemario hau.

## Itxaro Borda

Itxaro Bordak (Baiona, 1959) ibilbide luzea egin dau literaturan. 1984an argitaratu eban bere lehenengo poema liburua *Bizitza nola badoan* eta harrezkerotzik jarraitu dau poema liburua argitaratuten. Eleberriak be idatzi dauz Itxaro Bordak. Ezin dira aitatu barik itxi, Amaia Ezpeldoi detektibearen protagonista daukienak.

2002an Euskadi Saria irabazi eban, % 100 *basque* nobeleagaitik eta 2010ean Galiziako PEN Clubak Rosalía de Castro poesia saria emon eutsan.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

MASAJEAK EMOTOKO OHATILA  
SALGAI

Masajeak emotoko ohatila saltzean dot, barri-barria, bitan bakarrik erabilitekoa. Tolesgarria, besapean eroatekoa. Prezioa 100 euro. 619 661 841.

## UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta pianola funda bi saltzean dodaz. Interesautu zagozenak 679 909 869 telefonora deitu.

## DANERIK

## IKASTAROA

Buztinagaz gozatu gura badozu, ointxe dozu aukerea. Helduentzako keramika ikastaroa Igorren, eguazteneko ordu bi, 18:00etatik 20:00etara. Animauta bazagoz, deitu 615 731 182 telefonora.

## BASERRIRAKO LAGUN BILA

Igorren, Urkuzuko baserri baten bizi gara eta lagun bila gabiz. 200 euro. Giro atsegina, ortua, oiloak, frutarbolak, internet-a eta aukera gehiago.

Interesatuak deitu: Izaskun 605 728 358 edo Txapu 669 311 309 edo idatzi izaskun\_urbaneta@hotmail.com-era.

## TXISTUA GALDU DOT

Abenduaren 21ean, Lemoako eleiza inguruan txistua galdu neban. Baten batek topau ezkerko deitu 677 497 985 telefonora mesedez.

## BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketak egiten dot. Kotxeduna. 658 591 307.

## INGELES ESKOLAK

Ingeles irakasleak eskola partikularrak emoten ditu. Cambridgeko "Certificate of Proficiency in English" titulua daukat eta Erresuma Batuan bizi izan naz 4 urtez. Irune 615 708 238.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Arrastoak* antzezlanerako.


Nagore Lekue (Igorre)  
Elias Artabe (Arantzazu)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Rastros de sándalo* filma ikusteko.

Karmele Beobide (Zeanuri)  
Andoni Garai (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12

urte eta

ehundaka

lagun.

### DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

**EZKERRETIK ESKOIERA**

- 1.- Agozko hizkeran, zer. Lastargi.
- 2.- Birritan, umeen berbetan, ibili.
- Musika mota bat. 3.- Neodimioa.
- Harrapagailu. 4.- Lauoinka.
- 5.- Oxigenoa. Japoniako erdialdeko uria eta portua. Bokala. 6.- Maitale.
- 7.- Puntu kardinala. Bizkaieraz, hura.
- 8.- Tik..., erlojuaren hotsa. Zenbaki bat.
- 9.- Koipe. Errutenioa.

**GOITIK BEHERA**

- 1.- Hankea. Jomuga, helburu.
- 2.- Arraza, leinua. Bits. 3.- Bat erromatar. Hegazti. 4.- Azken letrea.
- Zarama. Nitrogenoa. 5.- Uroilanda.
- Boroa. 6.- Kopetakoa. Aholku.
- 7.- Izaera, aiurri. Sendatu.

U	R	N	R	U	6	N	E	C	E	R	N	U	3
I	V	B	K	T	8	N	I	H	X	J	Z	I	
V	H	R	A	P	7	R	O	I	M	X	O	I	
S	O	R	O	V	9	O	I	I	Z	O	V	N	M
O	E	U	B	O	5	V	X	X	X	O	I		
4	C	A	L	A	4	O	V	V	V	I	Z	O	I
O	P	O	Z	E	3	V	V	V	X	X	X	I	
P	A	N	I	Z	2	O	V	V	V	X	X	X	I
I	Z	E	Z	1	1	Z	O	I	V	V	I	I	
7	2	3	4	5	6	V	O	O	N	O	I	V	

Topau ETB1eko zazpi saioen izenak.

S	A	R	R	I	O	N	D	O	A
B	A	I	D	L	A	R	U	G	E
H	I	E	T	A	N	I	D	E	R
I	G	O	E	N	K	A	L	E	K
Z	O	S	A	M	E	A	N	K	O
K	R	I	K	O	L	R	E	N	B
A	K	L	I	K	U	R	A	I	E
M	I	O	Z	A	L	A	R	N	O
I	S	P	O	R	K	M	E	R	A
Z	U	O	K	A	Z	I	R	R	A
K	I	N	P	A	R	P	E	T	O
A	N	K	A	O	T	Z	A	K	Z
L	O	E	X	A	G	A	L	O	R
I	Z	T	E	R	R	A	M	I	N
R	G	A	U	R	E	G	U	N	U

# A K I M I K O

Z  
o  
r  
r  
o  
z  
k  
i  
l  
o



<p><b>Igorren ARKITEKTOA</b> Aitzol Aurrekoetxea Pujana Lehendakari Agirre 23, behea aitzol@coavn.org - 675 705 111</p>	<p><b>ZEKUTZE</b> JATETXEA Sabino Arana, 34 48140 IGORRE - Bizkaia Tel.: 94 631 52 83 zekutzejatetxea@hotmail.com</p>	<p><b>Dia %</b> <b>PEDRO</b> <b>AUTOSERBITZU</b> Sabino Arana, 35 48.140 Igorre Tel. 94 631 15 26</p>	<p><b>BIZARGINAK</b> Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu Bixarra egin eta txukunduten dogu Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543 48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793</p>	<p><b>LEHENENCO LINTERO KURTAN</b> %15eko DESKONTUA asesoreak basolo Emaldi Abokatuak ☎ 620. 57.86.04 asierabasolo@hotmail.com Bilbao-Zeanuri</p>
<p><b>Recreativos Gubi S.L.</b> Angel Larrea Zornotza Tfnoa 649 86 95 36</p>	<p><i>Los Chopos</i> neurritan egindako armairuak Arda, Los Chopos, 55 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94 <b>Esposizinoa eta fabrika Lemoan</b> Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44 www.armariosloschopos.com</p>	<p><b>GARANTXE Autoeskola</b> TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ Balonak: A1, A, BTP, B Lehendakari Agirre 31 Tfnoa: 94 673 71 32 48140 IGORRE (Bizkaia) garantxe@vodafone.net</p>	<p><b>AKEITEGIA</b> <b>GAY &amp; LORA</b> <b>IGORRE</b></p>	<p>AHOLKULARITZA: LEGE-LAN ARLOAN <b>ZUZENBIDE</b> ZERGA ETA DERU KONTSULTAN ONDASUN HIRIGIZENEN ASIGURUTAN Sabino Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE</p>
<p><b>BIXER TABERNA</b> Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO</p>	<p><b>Jose Luis Corbacho</b> <b>pintura lanak</b> Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87 Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54</p>	<p><b>KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM</b> Roberto eta Rosana Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia) ☎ 94 631 92 06</p>	<p><i>Pinturas Anatia</i> Javi Morato Tel. 628 443 992</p>	<p><b>ARRATIA AUTOESKOLA</b> karneta euskaraz zein erdaraz Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia) Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83 e-posta: urroz@arratia.net</p>

## AINHOA BERNAOLA ITURBE ETA NAIARA REMENTERIA ITURRIOZ

### Amarauna jaialdia: Jolasaz hezi kalea bizi

Ainhoa Bernaola eta Naiara Rementeria Zaztaparkideakaz batu da BEGITU. Asti taldeko parte izateaz gainera, momentu honetan Zaztaparrak eta Amarauna sarearen arteko zubi be badira. Amaraunak "Jolasaz hezi kalea bizi" jaialdia antolatatu dau zezeilaren 21erako Zarautzen. Sare honen nondik norakoak zein Zaztaparretakoak kontatu deuskuez.

**Irati Urien**

#### Zer da Amarauna?

**Naiara Rementeria:** Labur esanda, Euskal Herrian hezkuntza ez formalean diharduen aisialdi talde, eragile eta alkartearen arteko sarea da. Ardatz lez ume eta gaztean aisialdia, euskera eta euskal kultura daukatz, beti be balioen hezkuntzan oinarrituta. Aisialdi talde horreetako bat Zaztaparrak da.

#### Ze helburu daukatz Amaraunak?

**Ainhoa Bernaola:** Hainbat dira. Hezkuntza ez formalari daukan garrantzia emotea, aisialdi taldeen arteko hartu-emonak eregitea, aisialdi hezitzailea bultzatzea, euskerearen aldeko apustua egitea, euskal kultura ezetu eta ezagutarazotea zein babestutea... eta zelan ez sano ondo pasetea.

#### Zegaitik sortu zan?

**A.B.:** Aurretik aitatutako helburutan sinistuten eta lan egiten eben alkarte eta eragile desbardinaren arteko ezagutza eta koordinazioa beharrezko ikusten zalako.

#### Lehenengo jaialdia martxan dago.

**N.R.:** Jaialdia egiteko errazoi nagusiak gure arteko sarea indartu-

tea, eta Amarauna proiektua bera zabaldutea dira. Berez proiektua 2010ean biribildu zan, lehenengo urteak gure arteko koordinaziorako eta alkar ezetuteko erabili doguz eta orain kalera urtetako prest gagoz.

#### "Jolasaz hezi kalea bizi" leloa erabili dozue. Zer adierazo gura izan da beronegaz?

**N.R.:** Jolasa ikasketa prozesuaren motorra da eta ahalduz prozesurako ezinbesteko tresna dogu, jolasa bera txiki txikitarik erabilten dogu mundua behatu eta harremanak sortuteko. Hezi berbeari jagokenean, heziketa formaletik harago dagoan heziketa baten sinistuten dogulako. Eta kalean bizi, kale hori gu garalako eta asko aberastuten gaituan espazio bat dalako; kalea bizirik badago herria bizirik dago. Leloa osotuten daben lau berba honeek mamia daukie bai banan banan eta bai alkar josi ezker.

#### Zarautzen da zitea, zezeilaren 21ean. Zer topauko dogu bertan?

**A.B.:** Beste eragile batzukaz batera aurrera eroango dogun jaialdi bat izango da, Irrien Lagunak tartean. Eguna eta gaua buztar-

tuko dituan ospakizuna izango da, guneka antolatuta. Jolas gunea, azoka gunea, puzgarriena, tailerrena, eta jolas librearena izango dira. Jolas librearena esaten dogunean, irudimena erabilita modu aske baten olgetako txokoa esan gura da. 12:00etan txupinazoagaz hasiko dogu gure eguna eta hortik aurrera: Irrien Lagunak ikuskizuna, bazkaria, bertso-showa, umeentzako ipuin kontalaria, erromeria, kalejire... Gaubean kontzertuak egongo dira Putzuzulo gaztetxean; Uluka, Pixontxis, Bidelapurak, Atxurre, eta ostean karaokea.

**N.R.:** Deialdi zabala da, animetan dan edonor etorri leiteke. Gura dauanak zaztaparrak@gmail.com helbidera idaztea baino ez dauka, bazkarirako sarrerea lortu ahal izateko.

#### Amarauna kontu barria da, Zaztaparrak ez oster. Urte asko daroazuez Arratiako ume eta gazteai balio batzuk oinarri hartuta gozatu arazoten.

**N.R.:** Bai, aurten hogeitau urte

beteko doguz. Errez esaten da baina urte asko dira, behar eta ilusino amaibakodun urteak. Urte honeek betetea ez zan posible izango Zaztaparretatik pasau diran ume, gazte, ez hain gazte, behargin, herritar eta bolondresakaitik izango ez balitz. Danon artean Arratian sare polit bat sortuteak eroan gaitu hogeitau urte betetara, eta beste horrenbeste izan daitezala! Dan-danai eskerrek emoteko, badaukagu eta zer eskertu, sorpresatxo bat daukagu esku artean.

#### Ze proiektu eroaten ditu aurrera Zaztaparrak Asti Taldeak?

**A.B.:** Arratiako aisia koloraztuteko hainbat ekimen egiten doguz. Egia da eskualdeko herri danetan ez daukagula indar bardina, baina hola izatea gustauko litxakigu, erronka lez daukagu. Ludotekea, gazteleku eta gazteria zerbitzua, zein eskolaz kanpoko koordinazioa daroagu. Honekz batera familia transmisioa, Euskera Agoan, udaleku irekiak... eta danetan ezagunena eta arrakastuena dan udako udaleku itxia.

"Kalea bizirik badago,  
herria bizirik dago"

"Arratiako aisia  
koloraztuteko hainbat  
ekimen egiten doguz"



www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net  
Zabalik 07:00 - 19:00

# ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua



**KÄRCHER**  
Banatzaile ofiziala

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)











• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.  
• Garraio zerbitzua.